



Pirene salbatu

Kondairak dioenez, Pirene Iberiar penintsulan bizi zen printzesa eder-rra zen, eta ezkongai ugari zituen bertan. Baina Pirenek Herkules maite zuen, ezkutuan elkartzen zen berarekin basoan, printzesaren aita Tubalek aurkitu eta Herkules erbesteratzea erabaki zuen arte. Pirenek ez zuen galdu bere maitearekin berriro elkartzeko itxaropena. Basoetan barrena ibiltzen zen bere bila, harik eta egun batean Gerionekin topo egin zuen arte, hiru buruko munstro bat. Gerionek ere Pirene gor-teatu nahi zuen.

Gerionek zuhaitzak erre zituen Pireneren ihesa saihesteko, haren oinazekko oihuek Herkules ohartarazi zuten, zeina garaiz iritsi baitzen betiereko maitasuna adierazteko, baina ez haren heriotza eragozteko. Mitologia greko-erromatarren arabera Herkules, oinazeak hautsia, harrizko mendiak eraikitzen hasi zen Pirene lurperatzeko, gaur egun Pirinioak bezala ezagutzen duguna eratuz.

Azken urteetan, Pirinioetako mendikatearen eta bertan bizi diren komunitatearen gainean mehatxu bat dabil hegan: Bartzelona-Pirinioak Neguko Olinpiar Jokoak hartzeko hautagaitza. Gizartearen mobilizazioari eta kalkulu politikoei esker, Espainiako Gobernuak -oraingoz- uko egin dio Prateko aireportua handitzeari. Zalantzarik gabe, aurrekari ona da, eta beharrezko garaipena Kataluniako gizarte mugimenduentzat.

Baina, hala ere, Barricadak kantatzen zuen bezala, ez dago tregoarik. Admi-

Neguko Olinpiar
Jokoetarako
hautagaitza
bideragarria izateko
modu bakarra
erremontagailuak,
elur-kanoiak eta
eraikinak handitzea
eta hobetzea da,
eta horrek eragin
nabarmena izango luke
ekosistemetan

nistrazio publikoak ados jarri ziren uda baino lehen hautagaitza olinpikoa formalizatzeko: 2030eko neguko jokoan edizioa hartzeko kredentzialak aurkeztu zizkioten Nazioarteko Batzorde Olinpikoari. Pere Aragonès buru duen gobernuak adierazi du Damia Calvet *convergent*-eak asmatutako proiektua kaxoi batean gorde duela, ekitaldiaren ingurumen-iraunkortasuna bermatuko duen proiektu berri bat idazteko.

Askok galdetzen diogu geure buruari nola izango den hori posible. Pirinioetako tenperatura 1,3°C igo da azken 50 urteetan berotze globalaren ondorioz, eta batez besteko elur-kota 200 metro-



DAVID BOU
DIRECTA-KO
KAZETARIA

tik gora igo da, Kataluniako Metereologia Agentziaren arabera. Pirinioetako Ekologia Institutuak egin berri duen azterlan baten arabera, elur-mantuen lodiera %30 murriztuko da eta urtean 20 eta 30 artean egun gutxiago iraungo du 2.000 altuerako kotan. Grenobleko Unibertsitatearen beste txosten baten arabera, 2030 eta 2050 artean Pirinioetako eski-estazioen %80 elur artifizialearen mende egongo dira.

Ebidentzia zientifiko kaltegarrien agertoki hori aintzat hartuta, Neguko Olinpiar Jokoetarako hautagaitza bideragarria izateko modu bakarra erremontagailuak, elur-kanoiak eta eraikinak handitzea eta hobetzea da, eta horrek eragin nabarmena izango luke ekosistemetan. Etorkizunean zaharkituta geratuko diren azpiegiturak, bestalde, eskualde horietako turismo monolaborantzaren urtaroko eredu bezalaxe. Eredu hori, aldi berean, egoiliarren lan eta bizitzeko eze-gonkortasunean oinarrituta dago. Stop Jocs Olímpics plataformak ezin hobeto definitzen du bere leloan: "30 eguneko festa, 30 urteko miseria".

Honaino iritsita, milaka Pirenez osatutako gudaroste batengan konfiantza izatea besterik ez dugu, amesgaizto honetatik ihes egin eta basoak gure garai-ko Gerion guztien lukurreriatik salbatzeko. Espero dugu euskal herritarrak eta haranei diozuen maitasuna gure ondoan izatea borroka honetan, lotzen gaituen mendikatea ez dezan inongo su-terik inoiz erre. ●